## "ZUGAZTEL SAren ESTATUTU SOZIALAK"

## I. TITULUA

## IZENDAPENA, HELBIDEA, HELBURUA

**1. artikulua. Izendapena. Helbidea.**

Sozietatearen izena "ZUGAZTEL, SA" da.

Helbide soziala Bilboko Kanaria Uharteak 21, 3. solairuan dauka.

Sozietatearen administrazio organoak helbide soziala aldatu ahal izango du, baina udal barruti beraren barruan soilik. Halaber, sukurtsalak, agentziak edo ordezkaritzak sortu, kendu edo lekualdatu ahal izango ditu.

**2. artikulua. Helburu soziala.**

Sozietatearen helburua Bizkaiko Foru Aldundiaren, Foru Erakunde Publikoen eta Foru Enpresa Publikoen alde eta, kasuan-kasuan, Bizkaiko udalen eta izaera publikoko gainerako erakundeen alde, gauzatuko diren ondorengo jarduerak gauzatzea da:

1. *Call Center* jarduerak gauzatzea, zehazki, *hiritarren* arretarako, informaziorako eta sostengurako telefono zerbitzua ematea aipatutako erakunde, organismo eta instituzio publiko horiek emandako zerbitzuei dagokienez.
2. Datuak grabatzeko zerbitzuak ematea informazio teknologien bitartez, ondoren, behar bezala tratatzeko, maneiatzeko eta kodifikatzeko horiek digitalizatzea errazte aldera.
3. Dokumentuen eskaneatze eta digitalizazio jarduerak gauzatzea, ondoren, horiek sailkatzeko, indexatzeko eta biltegiratzeko.
4. Aipatutako zerbitzuen barruan dauden edo horiekin lotura daukaten bestelako jarduerak

Aipatutako jarduerak Sozietateak ere gauzatu ahal izango ditu, erabat edo partzialki, zeharka, antzeko helburua daukaten beste sozietate batzuetan parte hartuta.

## "ESTATUTOS SOCIALES DE ZUGAZTEL, S.A."

## TÍTULO I

## DENOMINACIÓN, DOMICILIO, OBJETO

**Artículo 1°. Denominación. Domicilio.**

La denominación de la Sociedad es "ZUGAZTEL, S.A.".

La Sociedad tiene su domicilio en Bilbao, calle Islas Canarias, 21, 3ª planta.

El órgano de administración de la Sociedad, y únicamente dentro del mismo término municipal, podrá trasladar el domicilio social. Asimismo, podrá crear, suprimir o trasladar sucursales, agencias o delegaciones.

**Artículo 2°. Objeto social.**

La Sociedad tiene por objeto las siguientes actividades que serán desarrolladas a favor de la Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia, Organismos Públicos Forales y Empresas Públicas Forales de la Diputación Foral de Bizkaia- Bizkaiko Foru Aldundia, así como, en su caso, a favor de los Ayuntamientos de Bizkaia y demás entidades de carácter público:

1. El desarrollo de actividades de *call center*, en concreto, la prestación del servicio telefónico de atención, información y soporte al ciudadano en relación a los servicios prestados por los referidos entes, organismos e instituciones públicas.
2. La prestación de servicios de grabación de datos a través de tecnologías de la información para su posterior tratamiento, manipulación, codificación que faciliten su digitalización.
3. El desarrollo de actividades de escaneo y digitalización de documentos, para su posterior clasificación, indexación y almacenamiento.
4. Cualesquiera otras actividades comprendidas dentro o relacionadas con los referidos servicios.

Las actividades enumeradas podrán ser también desarrolladas por la Sociedad, total o parcialmente, de modo indirecto, mediante la participación en otras sociedades con objeto análogo.

Foru Seilua
Tímbre Foral

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 9784833 A

**3. artikulua Iraupena.**

Sozietatearen iraupena mugagabea izango da eta haren osaketaren egunean ekingo die eragiketei.

## II. TITULUA

## KAPITAL SOZIALA, AKZIOAK ETA AKZIODUNAK

**4. artikulua Kapital soziala.**

Kapital soziala BI MILIOI SEIEHUN ETA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HAMABI ZENTIMOKOA da (2.616.225,12€), LAUREHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA HIRUREHUN ETA HAMABI (435.312) EUROKO akzio izendunetan banatuta, SEI EURO ETA ZENTIMO BATEKO (6,01 €) balio izendatukoa bakoitza. Mota bakarrekoak dira, guztiak arruntak dira, korrelatiboki izendatutakoak 1etik 435.212ra, biak barne. Ekintza guztiak osorik izenpetuta eta guztiz ordainduta daude.

**5. artikulua Akzioen jabekidetasuna**

1. Akzioak zatiezinak dira.

   Akzio baten jabekidedunek pertsona bakar bat izendatu beharko dute bazkideen eskubideak egikaritzeko eta Sozietatearen aurrean solidarioki erantzungo diete akziodun izatetik eratorritako betebeharrei.

2. Arau bera aplikatuko zaie akzioen gaineko eskubideen titularkidetasuneko gainontzeko hipotesiei.

**6. artikulua Akzioen eta eskubideen eskualdaketa erregimena.**

Sozietatearen akzioak libreki eskualda dakizkioke hirugarren bati, Sozietatearen akzioduna izan ala ez.

**7. artikulua Atxikitzea.**

Akzio bat edukitzeak Sozietatearen Estatutuei eta Batzorde Nagusiaren eta Administrazio Kontseiluaren erabakiei guztiz atxikitzea esan nahi du.

**8. artikulua Sozietatearen administrazioa.**

Sozietatea akziodunen Batzar Nagusiak eta Administrazio Kontseiluak eraenduko dute.

**Artículo 3º. Duración.**

La duración de la Sociedad es indefinida y dará comienzo a sus operaciones el día de su constitución.

## TÍTULO II

## DEL CAPITAL SOCIAL, ACCIONES Y ACCIONISTAS

**Artículo 4º. Capital social.**

El capital social es de DOS MILLONES SEISCIENTOS DIECISÉIS MIL DOSCIENTOS VEINTICINCO EUROS Y DOCE CÉNTIMOS (2.616.225,12€), dividido en CUATROCIENTAS TREINTA Y CINCO MIL TRESCIENTAS DOCE (435.312) acciones nominativas, de SEIS EUROS Y UN CÉNTIMO (6,01€) de valor nominal cada una, que constituyen una sola clase, todas ordinarias, numeradas correlativamente del 1 al 435.312, ambos inclusive. Todas las acciones se hallan íntegramente suscritas y totalmente desembolsadas.

**Artículo 5º. Copropiedad de acciones.**

1. Las acciones son indivisibles.

   Los copropietarios de una acción habrán de designar una sola persona para el ejercicio de los derechos de socio y responderán solidariamente frente a la Sociedad de cuantas obligaciones se deriven de la condición de accionistas.

2. La misma regla se aplicará a los demás supuestos de cotitularidad de derechos sobre las acciones.

**Artículo 6º. Régimen de transmisión de las acciones y derechos.**

Las acciones de la Sociedad son libremente transmisibles a favor de cualquiera terceros, sean o no accionistas de la Sociedad.

**Artículo 7º. Vinculación.**

La posesión de una acción supone o implica la adhesión plena a los Estatutos de la Sociedad y a las decisiones de la Junta General y del Consejo de Administración.

**Artículo 8º. Administración de la Sociedad.**

La Sociedad estará regida por la Junta General de accionistas y por el Consejo de Administración.

## III. TITULUA

## SOZIETATEAREN ORGANOAK

### 1. KAPITULUA

### BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENA

#### 1. ATALA

#### BATZAR NAGUSIAREN ESKUMENA

**9. artikulua Batzar Nagusiaren eskumena.**

1. Akziodunek, behar bezala deitutako Batzar Nagusian elkartuta, gehiengo bidez erabakiko dituzte Batzar Nagusiko eskumeneko gaiak.

2. Akziodun guztiak, baita disidenteak eta bileran parte hartu ez dutenak ere, Batzar Nagusiaren akordioen mende egongo dira, baina aplikagarria den legediaren arabera dagozkien aurkaratze eskubideak izango dituzte.

3. Akziodunen Batzar Nagusiak hartuko ditu, Legeari eta estatutuei jarraiki, haren eskumenekoak diren gaiei buruzko erabakiak eta, bereziki, Batzar Nagusiari dagokio ondorengo akordioak egitea:

(i) Urteko bakarkako kontuak onestea eta, kasuan-kasuan, Sozietatearen kontu bateratuak, ekitaldi bakoitzeko emaitzaren aplikazioari buruzko erabakia hartzea eta kudeaketa soziala zentsuratzea.

(ii) Administrariak izendatzea, berriz aukeratzea edo berrestea eta horien lagapena erabakitzea, baina aplikagarria den legediaren baldintzetan akziodunen kooptazio ahalmena eta ordezkaritza proportzionalerako eskubidea ere izango da.

(iii) Sozietatearen kontuen auditoreak eta, kasuan-kasuan, haren sozietate taldekoak izendatzea eta berriz aukeratzea, baita horien kargugabetzea erabakitzea ere legeak aurreikusitako baldintzetan.

(iv) Kapital soziala handitzea eta murriztea eta, kasuan-kasuan, Administrazio Kontseiluaren esku uztea. Legeak aurreikusitako baldintzak errespetatuta, hori gauzatzeko data edo datak adierazteko ahalmena. Administrazio Kontseiluak beti erabili ahal izango du partzialki edo guztiz eskuordetze hori eta, are gehiago, hori gauzatzeari uko egitea, merkatuaren edo

## TÍTULO III

## ÓRGANOS DE LA SOCIEDAD

### CAPÍTULO 1º

### LA JUNTA GENERAL DE ACCIONISTAS

#### SECCIÓN 1ª

#### COMPETENCIA DE LA JUNTA GENERAL

**Artículo 9º. Competencia de la Junta General.**

1. Los accionistas, constituidos en Junta General debidamente convocada, decidirán por mayoría en los asuntos propios de competencia de la Junta General.

2. Todos los accionistas, incluso los disidentes y los que no hayan participado en la reunión, quedan sometidos a los acuerdos de la Junta General, sin perjuicio de los derechos de impugnación que pudieran corresponderles de acuerdo con la legislación aplicable.

3. La Junta General de accionistas decidirá sobre todos los asuntos que, de acuerdo con la Ley y los estatutos, sean de su competencia, correspondiendo en particular a la Junta General la adopción de los acuerdos siguientes:

(i) Aprobar las cuentas anuales individuales y, en su caso, consolidadas de la Sociedad, resolver sobre la aplicación del resultado de cada ejercicio y censurar la gestión social.

(ii) Nombrar, reelegir o ratificar a los administradores y decidir su cese, sin perjuicio de la facultad de cooptación y del derecho de representación proporcional de los accionistas en los términos de la legislación aplicable.

(iii) Nombrar y reelegir a los auditores de cuentas de la Sociedad y, en su caso, a los de su grupo de sociedades, así como acordar su revocación en los casos legalmente previstos.

(iv) Aumentar y reducir el capital social delegando, en su caso, en el Consejo de Administración, respetando los requisitos establecidos por la Ley, la facultad de señalar la fecha o fechas de su ejecución, quien podrá hacer uso en todo o en parte de dicha delegación, o incluso abstenerse de ejecutarla, en consideración a condiciones del mercado, de la propia

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 9704832 A

Sozietatearen beraren baldintzak edo erabaki hori justifikatuko duen egintza kontuan hartuta, eta horren berri eman beharko dio hori gauzatzeko ezarritako epea amaitu ostean egingo den akziodunen lehen Batzar Nagusiari. Halaber, Administrazio Kontseiluaren esku utzi ahal izango du kapital soziala handitzeko ahalmena Sozietate Anonimoen Legean aurreikusitako baldintzetan.

Sociedad o hecho que justifique a su juicio tal decisión, dando cuenta de ello a la primera Junta General de accionistas que se celebre una vez concluido el plazo otorgado para su ejecución. También podrá delegar en el Consejo de Administración la facultad de aumentar el capital social en los términos previstos en la Ley de Sociedades Anónimas.

(v) Bonu edo obligazioak, sinpleak, bihurgarriak edo trukagarriak, warrant-ak edo aukerak (modu isolatuan bonuei edo obligazioei lotutakoak) jaulkitzea, aplikagarria den legediaren baldintzetan.

(v) Emitir bonos u obligaciones, simples, convertibles o canjeables, warrants u opciones (aisladamente unidos a bonos u obligaciones), en los términos de la legislación aplicable.

(vi) Estatutuak aldatzea.

(vi) Modificar los estatutos.

(vii) Sozietatearen desegitea, fusioa, zatiketa edo eraldaketa adostea.

(vii) Acordar la disolución, fusión, escisión y transformación de la Sociedad.

(viii) Sozietatearen desegitea, fusioa, zatiketa edo eraldaketa adostea.

(viii) Decidir sobre cualquier asunto que le sea sometido por el Consejo de Administración.

4. Legez edo estatutuen arabera Batzar Nagusiari ezarri ez zaizkion eskumenak administrazio organoari dagozkio.

4. Las competencias que no se hallen legal o estatutariamente atribuidas a la Junta General, corresponden al órgano de administración.

## 2. ATALA

## BATZAR NAGUSIAREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

## SECCIÓN 2ª

## ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LA JUNTA GENERAL

**10. artikulua Batzar nagusi motak.**

**Artículo 10º. Clases de Juntas generales.**

1. Batzar nagusiak arruntak edo apartekoak izan daitezke.

1. Las Juntas generales podrán ser ordinarias o extraordinarias.

2. Batzar Nagusi arrunta ekitaldi sozial bakoitzaren lehen hiruhilekoan bilduko da nahitaez, kudeaketa soziala zentsuratzeko, urteko kontuak onesteko eta emaitzaren aplikazioari buruzko erabakia hartzeko. Gainera, eguneko gai zerrendan dagoen beste edozein gai aztertu eta adostu ahal izango du.

2. La Junta General ordinaria se reunirá necesariamente dentro del primer semestre de cada ejercicio social, para censurar la gestión social, aprobar las cuentas anuales y resolver sobre la aplicación del resultado, sin perjuicio de su competencia para tratar y acordar sobre cualquier otro asunto que figure en el orden del día.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusita ez dagoen Batzar oro aparteko Batzar Nagusi gisa hartuko da.

3. Toda Junta que no sea la prevista en el párrafo anterior, tendrá la consideración de Junta General extraordinaria.

**11. artikulua Batzar Nagusia deitzeko eskumena.**

**Artículo 11º. Competencia para la convocatoria de la Junta General.**

1. Batzar nagusiak Sozietatearen administrazio organoak deitu beharko ditu.

1. Las Juntas generales habrán de ser convocadas por el órgano de administración de la Sociedad.

2. Administrazio organoak Batzar Nagusia deitu ahal izango du interes sozialetarako egokitzat jotzen duen orotan eta Batzar Nagusia deitzera derrigortuta egongo da ondorengo kasuetan:

(a) Aurreko artikuluaren 2. atalean aurreikusitako hipotesian.

(b) Bizkaiko Foru Aldundiak, haren arau erregulatzaileen arabera osatutakoak, modu baliagarrian adosten duenean batzarra egitea. Xedapen hori indarrean egongo da Bizkaiko Foru Aldundia Sozietatearen akziodun bakarra baldin bada. Halaber, Batzarra deitutzat joko da eta modu baliogarrian osatutzat hartuko da Bizkaiko Foru Aldundiko kide guztiak beti presente baldin badaude eta bertaratutakoek aho batez onartzen badute batzarra egitea.

2. El órgano de administración podrá convocar la Junta General siempre que lo considere oportuno para los intereses sociales y estará obligado a hacerlo en los siguientes casos:

(a) En el supuesto previsto en el apartado 2 del artículo anterior.

(b) Cuando la Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia, constituida conforme a sus normas reguladoras, acuerde válidamente su celebración. Esta disposición conservará su vigencia mientras la Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia ostente la condición de accionista único de la Sociedad. Asimismo, La Junta se entenderá convocada y quedará válidamente constituida para tratar cualquier asunto siempre que estén presentes todos los miembros de la Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia y los asistentes acepten por unanimidad la celebración de la Junta.

**12. artikulua Batzar Nagusiaren mahaia.**

1. Batzar Nagusiaren mahaia, gutxienez, Batzar Nagusiaren presidenteaz eta idazkariaz osatuta egongo da. Halaber, horren kide izan ahal izango dute Sozietatearen administrazio organoko kideek.

2. Batzar Nagusiaren presidentea Administrazio Kontseiluaren presidentea izango da eta, ez baldin badago, ezin badu edo ondoezik badago, Kontseiluaren presidenteordea.

   Bietako inor ez balego, Batzarraren administrazio organoaren adin nagusieneko kideak jardungo luke presidente gisa eta, bestela, bertaratutakoek aukeratutako akziodunak.

3. Presidenteak idazkariaren laguntza izango du. Batzar Nagusiaren idazkaria Administrazio Kontseiluaren idazkaria izango da eta, berak bertaratu ezin badu, idazkariordea. Idazkariordea ez badago, bertaratutako kontseilarietatik gazteenak jardungo du idazkari gisa eta, bestela, bertaratutakoek aukeratutako akziodunak.

4. Notarioa bertan izatea eskatzen bada, notarioak Batzar Nagusiko Mahaian hartuko du parte.

**Artículo 12º. Mesa de la Junta General.**

1. La Mesa de la Junta General estará formada, al menos, por el Presidente y el Secretario de la Junta General. Asimismo podrán formar parte de ella los miembros del órgano de administración de la Sociedad.

2. La Junta General estará presidida por el Presidente del Consejo de Administración y, en caso de ausencia, imposibilidad o indisposición de éste, por el Vicepresidente del mismo.

   Si ninguno estuviera presente, actuará como Presidente de la Junta el miembro del órgano de administración de mayor edad y, en su defecto, el accionista que elijan los asistentes.

3. El Presidente estará asistido por el Secretario. Será Secretario de la Junta General el Secretario del Consejo de Administración y, en el caso de que éste no asista personalmente, el Vicesecretario. En su defecto, actuará como Secretario el consejero presente de menor edad o, en su caso, el accionista que elijan los asistentes.

4. Si hubiera sido requerida la presencia de Notario, éste formará parte también de la Mesa de la Junta General.

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince centimos



**13. artikulua Akordioak egitea.**

1. Akordioak emandako botoen gehiengo soilaren bitartez egingo dira

2. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, Sozietate Anonimoen Legearen 103.2. artikuluan zehaztutakoari jarraiki, bertan aurreikusitako akordioak direnean, bigarren deialdian bertaratutako akziodunek boto eskubidea daukan izenpetutako kapitalaren %50 baino gutxiago osatzen badute, akordioak presente dagoen edo Batzarrean ordezkaritza duen kapitalaren bi herenen aldeko botoekin egin ahal izango dira modu baliagarrian.

3. Gai bati buruzko bozketa eta boto kontaketa egin ondoren, presidenteak emaitza adieraziko du eta, bidezkoa bada, akordioa ongi egindakotzat joko du.

4. Akordio jakin baten kontrako botoa eman duen edozein akziodun botodunek edo botorik gabeko edozein akziodunek eskubidea izango du Batzar Nagusiaren aktan egindako akordioaren kontra dagoela adierazteko.

**Artículo 13º. Adopción de acuerdos.**

1. Los acuerdos se adoptarán por la mayoría simple de los votos emitidos.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, de conformidad con lo previsto en el artículo 103.2 de la Ley de Sociedades Anónimas, cuando se trate de la adopción de los acuerdos contemplados en el mismo, en el supuesto de que en segunda convocatoria concurran accionistas que representen menos del 50% del capital suscrito con derecho a voto, los acuerdos sólo podrán adoptarse válidamente con el voto favorable de los dos tercios del capital presente o representado en la Junta.

3. Una vez sometido un asunto a votación y realizado el escrutinio de los votos, el Presidente proclamará el resultado, declarando, en su caso, válidamente adoptado el acuerdo.

4. Cualquier accionista con voto que hubiera votado en contra de un determinado acuerdo y cualquier accionista sin voto tiene derecho a que conste en el acta de la Junta General su oposición al acuerdo adoptado.

## 2. KAPITULUA

## ADMINISTRAZIO ORGANOA

### 1 ATALA

### XEDAPEN OROKORRAK

**14. artikulua Administrazio organoaren egitura.**

1. Sozietatea 5 kide baino gutxiagokoa eta 15 kide baino gehiagokoa ez den kide kopuruaz osatutako Administrazio Kontseiluak administratuko du.

2. Administrazio organoaren kide izendatzeko ez da beharrezkoa akzioduna izatea. Kontseilariak libreki izendatuko ditu Batzar Nagusiak modu berezian gaitutako pertsonen artean eta 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta une bakoitzean indarrean den legedian kargu adierazgarriak egikaritzeko aurreikusitako ezgaitasunen edo bateraezintasunen mende egongo dira, baina Sozietate Anonimoen Legean zehaztutakoa baztertu gabe.

## CAPITULO 2º

## EL ÓRGANO DE ADMINISTRACIÓN

### SECCIÓN 1ª

### DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 14º. Estructura del órgano de administración.**

1. La Sociedad estará administrada por un Consejo de Administración integrado por un número de miembros no inferior a 5 ni superior a 15.

2. Para ser nombrado miembro del órgano de administración no se requiere la condición de accionista. Los Consejeros serán designados libremente por la Junta General entre personas especialmente capacitadas y estarán afectados por las incapacidades e incompatibilidades que para ejercer cargos representativos se señalan en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre y en la legislación aplicable en cada momento, sin perjuicio de lo establecido en la Ley de Sociedades Anónimas.

3. Administrazio organoko kideek lau (4) urteko epean egikarituko dute euren kargua eta behin edo gehiagotan aukeratu ahal izango dira berriz, iraupen bereko epealdietarako.

4. Kooptazio bidez izendatutako administrazio organoko kideek lehen Batzar Nagusiaren bileraren data arte egikarituko dute kargua.

5. Administrazio organoko kideek kargua utziko dute Batzar Nagusiak erabakitzen duenean, Sozietateari ukoaren edo dimisioaren berri ematen diotenean eta izendapenaren iraupeneko epealdia igarotzen denean. Azken kasu horretan, lagapena eragingarria izango da hurrengo lehen Batzar Nagusia biltzen den egunean edo aurreko ekitaldiko kontuak onesteari buruzko erabakia hartzeko Batzarra egiteko legezko mugapea igarotzean.

3. Los miembros del órgano de administración ejercerán su cargo durante el plazo de cuatro (4) años y podrán ser reelegidos una o más veces por períodos de igual duración.

4. Los miembros del órgano de administración designados por cooptación ejercerán su cargo hasta la fecha de reunión de la primera Junta General.

5. Los miembros del órgano de administración cesarán en su cargo cuando lo decida la Junta General, cuando notifiquen a la Sociedad su renuncia o dimisión y cuando haya transcurrido el período para el que fueron nombrados. En este último caso, el cese será efectivo el día en que se reúna la primera Junta General siguiente o hubiere transcurrido el término legal para la celebración de la Junta que deba resolver sobre la aprobación de cuentas del ejercicio anterior.

**15. artikulua Administratzaileen ordainsaria.**

Kontseilari kargua ez da ordainpekoa izango. Alabaina, kontseilariek dietak jasoko dituzte Batzar Nagusiak urte bakoitzerako zehazturiko saioetan parte hartzeagatik.

**Artículo 15°. Remuneración de los administradores.**

El cargo de consejero no tiene carácter retribuido. No obstante, los Consejeros recibirán las dietas de asistencia a las sesiones que anualmente señale la Junta General.

## 2. ATALA

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

**16. artikulua Administrazio Kontseiluko kargua.**

1. Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluaren presidentea izendatuko du eta, nahi izanez gero, presidenteorde bat edo batzuk ere bai. Hainbat presidenteordetza badaude, presidenteordetza bakoitza zenbakituta egongo da. Zenbakiaren lehentasunak zehaztuko du presidenteordeek presidentea ordezkatzeko ordena hura ez badago, gai ez bada edo hutsunerik badago.

2. Batzar Nagusiak Kontseiluaren idazkaria izendatuko du eta, nahi izanez gero, idazkariorde bat ere bai, eta horiek ezingo dute kontseilari izan. Beraz, Kontseiluaren bileretan ahotsa izango dute baina botorik ez. Idazkariordeak idazkaria ordezkatuko du hura ez badago, gai ez bada edo hutsunerik badago.

## SECCIÓN 2ª

## EL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN

**Artículo 16°. Cargos del Consejo de Administración.**

1. La Junta General designará al Presidente del Consejo de Administración y, potestativamente, a uno o varios Vicepresidentes. En caso de pluralidad de Vicepresidentes, cada una de las Vicepresidencias irá numerada. La prioridad de número determinará el orden en que los Vicepresidentes sustituirán al Presidente en casos de ausencia, incapacidad o vacante.

2. La Junta General designará un Secretario del Consejo de Administración y, potestativamente, un Vicesecretario, quienes no podrán ser consejeros, actuando en las sesiones del Consejo con voz pero sin voto. El Vicesecretario sustituirá al Secretario en los casos de ausencia, indisposición, incapacidad o vacante.

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos



**17. artikulua Administrazio Kontseiluaren deialdia.**

1. Administrazio Kontseilua presidenteak deituko du beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duen orotan edo presidentearen heriotza gertatzen bada, presidentea ez badago, gai ez bada edo ezin badu, presidenteordeak edo haren funtzioak gauzatzen dituenak, edo, gutxienez bost (5) kontseilariren eskariz. Azken kasu horretan, presidentea edo haren funtzioak gauzatzen dituena derrigortuta egingo da Kontseiluaren bilkura deitzera bi (2) eguneko gehieneko epean, deialdiaren eskaera jasotzen den unetik kontatzen hasita.

2. Deialdia kontseilari bakoitzari zuzendutako gutun bitartez egingo da eta fax bidez bidali beharko da bileraren eguna baino bi (2) lanegun lehenago gutxienez. Deialdiaren gutunak eguneko gai zerrenda gisa proposatutako gaiak zehaztuko ditu, kontseilari guztiak horien jakinaren gainean izan daitezen bilera egin aurretik.

3. Salbuespen gisa, presidenteak edo haren funtzioak gauzatzen dituenak, telefonoz deitu ahal izango du Administrazio Kontseiluaren bilera, bi eguneko gutxieneko aurrerapena eta aurretik adierazi ditugun gainerako baldintzak kontuan hartu gabe, haren ustez hori justifikatzeko aparteko baldintzak baldin badaude.

4. Administrazio Kontseilua modu baliagarrian osatutzat joko da deialdirik egin gabe haren kideek, bertaratuta edo ordezkari baten bitartez, aho batez onartzen badute bilera egitea.

**Artículo 17º. Convocatoria del Consejo de Administración.**

1. El Consejo de Administración será convocado por el Presidente siempre que lo considere necesario o conveniente, o en caso de fallecimiento, ausencia, incapacidad o imposibilidad de éste, por el Vicepresidente o quien haga sus funciones, o a petición de, al menos, cinco (5) consejeros. En este último caso, el Presidente, o quien haga sus funciones, estará obligado a proceder a la convocatoria de la sesión del Consejo en un plazo máximo de dos (2) días a contar desde la recepción de la petición de la convocatoria.

2. La convocatoria se realizará mediante carta dirigida a cada uno de los consejeros, que será remitida por fax cuando menos con dos (2) días hábiles de antelación a la fecha de la reunión. La carta de convocatoria especificará los asuntos propuestos como orden del día, a fin de que todos los consejeros estén informados antes de la celebración de la reunión.

3. Excepcionalmente, el Presidente o quien haga sus veces, podrá convocar reunión del Consejo de Administración por teléfono, sin observancia del plazo de antelación y demás requisitos anteriormente indicados, cuando a su juicio existan circunstancias extraordinarias que así lo justifiquen.

4. El Consejo de Administración se entenderá válidamente constituido sin necesidad de convocatoria si, presentes o representados todos sus miembros, aceptasen por unanimidad la celebración de sesión.

**18. artikulua Kontseilua egiteko lekua.**

1. Administrazio Kontseiluak haren helbide sozialean egingo ditu bilerak, deialdian bilera egiteko beste lekuren bat adierazten ez bada behintzat.

2. Salbuespen gisa, kiderik aurka ez badago, Kontseilua bilerarik gabe eta idatziz edo bideokonferentzia edo telefono bidezko konexio anitz baten bitartez egin ahal izango da, legez egin badaiteke.

**Artículo 18º. Lugar de celebración del Consejo**

1. El Consejo de Administración celebrará sus sesiones en el domicilio social, salvo que en la convocatoria se indique otro lugar de celebración.

2. Excepcionalmente, si ningún miembro se opone a ello, podrá celebrarse el Consejo sin sesión y por escrito o mediante videoconferencia o conexión telefónica múltiple, si fuere posible legalmente.

**19. artikulua Administrazio Kontseiluaren osaketa.**

1. Administrazio Kontseilua modu baliagarrian osatuta geldituko da edozein gairi buruzko eztabaidak egiteko eta erabakiak hartzeko bileran parte hartzen dutenean, eurak bertaratuta edo ordezkarien bitartez, Kontseiluko kideen erdiak gehi batek.
2. Administrazio Kontseiluko kideek euren ordezkaritza Kontseiluko beste kide baten esku utzi ahal izango dute soilik.
3. Ordezkaritza presidenteari edo haren lanak gauzatzen dituenari zuzendutako edozein idatzizko bideren bitartez eta izaera bereziarekin emango da bilkura bakoitzerako.

**20. artikulua Administrazio Kontseiluak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko daukan modua.**

1. Presidenteak eguneko gai zerrendako gaiak eztabaidara bideratuko ditu, bai hori deialdian badago, bai saioaren hasieran erabaki bada.
2. Presidenteak behar adina eztabaidatutzat jotzen badu gai bat, bozketa egingo da eta Kontseiluko kide bakoitzari, bertaratuta edo ordezkari bidez, boto bat dagokio.
3. Akordioak bileran, bertaratuta edo behar bezalako ordezkari bidez, dauden kontseilarien gehiengo absolutuarekin hartuko dira.
4. Administrazio Kontseiluaren bilerako akta Kontseiluaren idazkariak egingo du eta, ez badago, idazkariordeak. Horiek ez badaude, bertaratutakoek bilerako idazkari gisa izendatutako pertsonak egingo du akta.
5. Akta Kontseiluak berak onetsiko du bileraren amaieran edo hurrengo bileran.

## 3. ATALA

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ESKUMENA

**21. artikulua Administrazioko gaitasunak.**

Batzar Nagusirako legez edo estatutu aldetik erreserbatutako gaietan izan ezik, Administrazio Kontseilua da Sozietatearen organo erabakitzaile maximoa eta hori administratzeko beharrezko eskumen guztiak dauzka.

**Artículo 19º. Constitución del Consejo de Administración**

1. El Consejo de Administración quedará válidamente constituido para deliberar y acordar sobre cualquier asunto cuando concurran a la sesión, presentes o representados, la mitad más uno de sus componentes.
2. Los miembros del Consejo de Administración sólo podrán delegar su representación en otro miembro del Consejo.
3. La representación habrá de conferirse por cualquier medio escrito dirigido al Presidente o a quien haga sus veces y con carácter especial para cada sesión.

**Artículo 20º. Modo de deliberar y adoptar los acuerdos el Consejo de Administración.**

1. El Presidente someterá a deliberación los asuntos del orden del día, tanto si constara éste en la convocatoria, como si se confecciona al comienzo de la sesión.
2. Una vez que el Presidente considere suficientemente debatido un asunto, lo someterá a votación, correspondiendo a cada miembro del Consejo, presente o representado, un voto.
3. Los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de los consejeros concurrentes a la sesión, presentes o debidamente representados.
4. El acta de la sesión del Consejo de Administración se confeccionará por el Secretario del Consejo y, en su ausencia, por el Vicesecretario. A falta de éstos, confeccionará el acta la persona que hubiera sido designada por los concurrentes como Secretario de la sesión.
5. El acta se aprobará por el propio Consejo al final de la sesión o en la inmediata siguiente.

## SECCIÓN 3ª

## COMPETENCIA DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN

**Artículo 21º. Facultades de administración.**

Salvo en las materias legal o estatutariamente reservadas a la Junta General, el Consejo de Administración es el máximo órgano de decisión de la Sociedad y dispone de todas las competencias necesarias para administrarla.

Foru Seilua
Timbre Foral
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos



**22. artikulua Ahalmenen eskuordetzea.**

1. Administrazio Kontseiluak modu iraunkorrean eskuordetu ahal izango dizkio bere ahalmen guztiak edo batzuk Batzorde exekutibo bati edo/eta kontseilari-ordezkari bati edo batzuei eta organo ordezkariaren titular izango diren Kontseiluko kideak zein diren zehaztu ahal izango du, baita, kasuan-kasuan, kontseilari-ordezkariei emandako ahalmenak egikaritzeko modua ere.

2. Ahalmenen eskuordetze iraunkorrerako eta kargu horiek beteko dituzten Kontseiluko kideak zehazteko, beharrezkoa izango da Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa eta ez dute inolako eraginik izango Merkataritzako Erregistroan inskribatu arte.

3. Sekula ezingo dira eskuordetu kontu ematea eta Batzar Nagusiari balantzeak aurkeztea, ezta Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluari eskuordetu dizkionak ere, azken kasu horretan, Batzar Nagusiaren baimen espresua baldin badago salbu.

4. Eskuordetzea gorabehera, Administrazio Kontseiluak eskuordetutako ahalmenak mantenduko ditu.

**23. artikulua Aholku Batzordeak.**

1. Administrazio Kontseiluak, bere helburu soziala betetze aldera, beharrezkotzat jotzen dituen Batzordeak izendatu ahal izango ditu bere baitan.

2. Horiek Aholku Batzorde hutsak izango dira eta ez dute erabakitzeko ahalmenik izango.

**24. artikulua Ordezkaritza boterea.**

1. Ordezkaritza boterea, epaiketan eta epaiketatik kanpo, Batzordeari dagokio eta kolegiatu gisa jardungo du.

   Halaber, Sozietatearen ordezkaritza boterea Administrazio Kontseiluaren presidenteak izango du.

2. Organo ordezkarien ordezkaritza boterearen ardatza ordezkaritza akordioan xedatutakoa izango da. Kontrakorik adierazi ezean, ordezkaritza boterea kontseilari ordezkariei modu solidarioan eman zaiela ulertuko da eta, ordezkaritza organoa pertsona anitzekoa baldin bada, Batzorde Exekutiboaren presidenteari.

**Artículo 22º. Delegación de facultades.**

1. El Consejo de Administración podrá delegar, con carácter permanente, la totalidad o parte de sus facultades en una Comisión ejecutiva y/o en uno o varios Consejeros-delegados, y determinar los miembros del propio Consejo que vayan a ser titulares del órgano delegado, así como, en su caso, la forma de ejercicio de las facultades concedidas a los consejeros-delegados.

2. La delegación de facultades con carácter permanente y la de terminación de los miembros del propio Consejo que hayan de ocupar tales cargos, requerirán para su validez el voto favorable de las dos terceras partes de los componentes del Consejo y no producirán efecto alguno hasta su inscripción en el Registro Mercantil.

3. En ningún caso podrán ser objeto de delegación la rendición de cuentas y la presentación de balances a la Junta General ni aquellas que la Junta General hubiera delegado en el Consejo de Administración, salvo en este último caso autorización expresa de la Junta General.

4. No obstante la delegación, el Consejo de Administración conservará las facultades delegadas.

**Artículo 23º. Comisiones Asesoras**

1. El Consejo de Administración, para el cumplimiento de su objeto social, podrá nombrar en su seno las Comisiones que crea necesarias.

2. Éstas serán simplemente asesoras y no tendrán facultades de decisión.

**Artículo 24º. Poder de representación.**

1. El poder de representación, en juicio y fuera de él, corresponderá al Consejo, que actuará colegiadamente.

   Asimismo, ostentará el poder de representación de la Sociedad el Presidente del Consejo de Administración.

2. El poder de representación de los órganos delegados se regirá por lo dispuesto en el acuerdo de delegación. A falta de indicación en contrario, se entenderá que el poder de representación ha sido conferido solidariamente a los consejeros delegados y, en caso de que el órgano delegado sea pluripersonal, al Presidente de la Comisión Ejecutiva.

## 4. ATALA

## ZUZENDARI KUDEATZAILEA

**25. artikulua Zuzendari Kudeatzailea.**

Administrazio Kontseiluak zuzendari kudeatzaile bat izendatu ahal izango du. Izendapen horrek ondorengo arauei jarraituko die:

1. Zuzendari kudeatzailea Administrazio Kontseiluak izendatuko eta bananduko du.
2. Karguaren banaketa edozein unetan adostu ahal izango du Administrazio Kontseiluak.
3. Administrazio Kontseiluak edozein unetan utzi ahal izango du etenda zuzendari kudeatzailearen jarduna.
4. Zuzendari kudeatzailearen izendapenean Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateginaren 124. artikuluak, 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eta arlo horretan indarrean diren gainerako xedapenak hartuko dira ardatz gisa.
5. Zuzendari kudeatzaile karguak ordainsaria izango du, Batzar Nagusiak besterik adosten ez badu.

Zuzendari kudeatzaileak Administrazio Kontseiluak kasu bakoitzean zehaztutako ahalmenak izango ditu.

## SECCIÓN 4ª

## DIRECTOR GERENTE

**Artículo 25º. Director Gerente**

El Consejo de Administración podrá nombrar un Director Gerente. Tal nombramiento se regirá por las normas siguientes:

1. El Director Gerente será designado y separado por el Consejo de Administración.
2. La separación del cargo podrá ser acordada en cualquier momento por el Consejo de Administración.
3. El Consejo de Administración podrá dejar en suspenso, en cualquier tiempo, al Director Gerente.
4. En el nombramiento de Director Gerente se observarán las normas que en materia de prohibiciones e incompatibilidades establecen el artículo 124 del Texto Refundido de la Ley de Sociedades Anónimas, la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, y demás disposiciones vigentes en la materia.
5. El cargo de Director Gerente será retribuido, salvo que otra cosa acuerde la Junta General.

El Director Gerente tendrá las facultades que en cada caso determine el Consejo de Administración.

## 5. ATALA

## AKORDIO SOZIALAK TRESNA PUBLIKO BIHURTZEA

**26. artikulua Tresna publiko bihurtzeko ahalmenduta dauden pertsonak.**

1. Administrazio Kontseiluaren idazkariari eta, kasuan-kasuan, haren idazkariordeari, dagokio Sozietatearen organoek egindako akordioak tresna publiko bihurtzea.
2. Akordio sozialak, halaber, akordioak egiteko bileran dagokion organoak espresuki ahalmendutako Administrazio Kontseiluko kideak edo kideek bihurtu ahal izango dituzte tresna publiko eta, horrelakorik ezean, presidenteak, presidenteordeak eta kontseilari ordezkariak edo ordezkariek.
3. Edonola ere, tresna publiko bihurtzeko ahalmenduta dauden pertsonen izendapenak indarrean eta Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharko du.

## SECCION 5ª

## ELEVACIÓN A INSTRUMENTO PÚBLICO DE LOS ACUERDO SOCIALES

**Artículo 26º. Personas facultadas para la elevación a instrumento público.**

1. Corresponde al Secretario del Consejo de Administración y, en su caso, al Vicesecretario del mismo, la elevación a instrumento público de los acuerdos adoptados por los órganos de la Sociedad.
2. La elevación a instrumento público de los acuerdos sociales podrá realizarse también por el miembro o miembros del Consejo de Administración expresamente facultados para ello por el órgano correspondiente en la reunión en que se hayan adoptado los acuerdos y, en su defecto, por el Presidente, Vicepresidentes y Consejero o Consejeros delegados.
3. En todo caso, las personas facultadas para la elevación a instrumento público deberán tener su nombramiento vigente e inscrito en el Registro Mercantil.

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 9704828 A

## IV. TITULUA

## URTEKO KONTUAK

**27. artikulua Urteko kontuen formulazioa.**

1. Legezko epearen barruan, administratzaileek urteko kontuak formulatu eta sinatuko dituzte, baita emaitzaren aplikazio proposamena eta kudeaketa txostena ere.
2. Halaber, kasuan-kasuan, urteko kontuak eta finkatutako kudeaketa txostena formulatu eta sinatuko dituzte, Legeak aurreikusitako baldintzetan.
3. Sozietatearen memorian administratzaileek edo haren ordez diharduen pertsonak urteko kontuei dagozkien ekitaldi sozialean Sozietatearekin edo talde bereko sozietate batekin gauzatutako eragiketen berri eman beharko du, eragiketak Sozietatearen ohiko eragiketa motetatik kanpo baldin badaude edo merkatuaren baldintzetan gauzatzen ez badira. Halaber, administratzaileek eurek edo sozietate baten kapitalean helburu sozial horren jarduera genero berarekin, antzekoarekin edo osagarriarekin lotuta dauden pertsonek daukaten partaidetzaren berri eman beharko dute, baita bere kontura edo bertatik kanpo helburu sozialak barneratutako jarduera genero beretik, antzekotik edo osagarritik gauzatzen dituzten karguen edo funtzioen berri ere.

**28. artikulua Ekitaldi soziala.**

Sozietatearen ekitaldi soziala urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasiko da eta abenduaren 31n amaituko da.

**29. artikulua Urteko kontuen egiaztapena.**

Urteko kontuak eta kudeaketa txostena kontu auditoreek berrikusi beharko dituzte Legeak aurreikusitako baldintzetan.

**30. artikulua Urteko kontuen onespena eta erregistroa.**

1. Urteko kontuak akziodunen Batzar Nagusi arruntean onetsiko dira.

## TITULO IV

## CUENTAS ANUALES

**Artículo 27°. Formulación de las cuentas anuales.**

1. Dentro del plazo legal, los administradores formularán y firmarán las cuentas anuales y la propuesta de aplicación del resultado así como el informe de gestión.
2. Asimismo, en su caso, formularán y firmarán las cuentas anuales y el informe de gestión consolidados, en los términos previstos en la Ley.
3. En la memoria de la Sociedad se deberá informar sobre las operaciones de los administradores, o persona que actúe por cuenta de estos, realizadas durante el ejercicio social a que se refieren las cuentas anuales con la Sociedad o con una sociedad del mismo grupo cuando las operaciones sean ajenas al tráfico ordinario de la Sociedad o no se realicen en condiciones de mercado. Asimismo los administradores deberán comunicar la participación que tuvieran ellos mismos o personas vinculadas en el capital de una sociedad con el mismo, análogo o complementario género de actividad al que constituya el objeto social, así como los cargos o las funciones que en ella ejerzan y la realización por cuenta propia o ajena del mismo, análogo o complementario género de actividad del que constituya el objeto social.

**Artículo 28°. Ejercicio social**

El ejercicio social de la Sociedad comenzará el 1 de enero y finalizará el 31 de diciembre de cada año.

**Artículo 29°. Verificación de las cuentas anuales.**

Las cuentas anuales y el informe de gestión deberán ser revisados por auditores de cuentas en los términos previstos por la Ley.

**Artículo 30°. Aprobación y depósito de las cuentas anuales.**

1. Las cuentas anuales se someterán a la aprobación de la Junta General ordinaria de accionistas.

2. Urteko kontuak onetsi ostean, Batzar Nagusiak ekitaldiaren emaitzaren aplikazioari buruzko erabakia hartuko du.

Batzar Nagusiak dibidenduak banatzea adosten badu, ordainketaren unea eta modua zehaztuko ditu eta erabaki hori administrazio organoaren esku ere utzi ahal izango du. Batzar Nagusiak dibidendua espezietan jasotzea adostu ahal izango du baina, kasu horretan, izaera homogeneoko ondasunak edo eskubideak erabili ahal izango dira soilik.

3. Urteko kontuak onetsi osteko hurrengo hilabetean, administratzaileek Batzar Nagusien urteko kontuen onespenaren eta emaitzaren aplikazioaren egiaztapena aurkeztu beharko dute helbide sozialari dagokion Merkataritzako Erregistroan erregistratzeko eta kontu horien ale bat atxikiko dute baita, kasuan-kasuan, kudeaketa txostenaren eta auditoreen txostenaren ale bana ere.

## VI. TITULUA

## SOZIETATEA DESEGITEA ETA SOZIETATEAREN LIKIDAZIOA

**31. artikulua Sozietatea desegitea.**

Sozietatea Sozietate Anonimoen Legean aurreikusitako arrazoiengatik eta eraginekin desegingo da.

**32. artikulua Likidatzaileak. Desegindako sozietatearen ordezkaritza boterea.**

1. Sozietatea desegin ostean, izendapena indarrean eta Merkataritzako Erregistroan inskribatuta daukaten administratzaile guztiak eskubidez likidatzaile bihurtuko dira, Sozietateak desegitea adosterakoan beste batzuk izendatu baditu salbu. Administratzaileen kopurua parea bada, adinez gazteena dena ez da likidatzailea izango.

2. Sozietatea desegiten bada, ordezkaritza boterea, solidarioki, likidatzaile bakoitzari dagokio, administratzaileei ezarritako ordezkaritza boterearen erregimena dena delakoa izanda ere.

2. Una vez aprobadas las cuentas anuales, la Junta General resolverá sobre la aplicación del resultado del ejercicio.

Si la Junta General acuerda distribuir dividendos, determinará el momento y la forma de pago, pudiendo también encomendar dicha determinación al órgano de administración. La Junta General podrá acordar que el dividendo sea satisfecho en especie, pero en este caso solamente podrán utilizarse bienes o derechos de naturaleza homogénea.

3. Dentro del mes siguiente a la aprobación de las cuentas anuales, los administradores presentarán, para su depósito en el Registro Mercantil del domicilio social, certificación de los acuerdos de la Junta General de aprobación de las cuentas anuales y de aplicación del resultado, a la que se adjuntará un ejemplar de dichas cuentas, así como en su caso, del informe de gestión y del informe de los auditores.

## TÍTULO VI

## DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN DE LA SOCIEDAD

**Artículo 31°. Disolución de la Sociedad.**

La Sociedad se disolverá por las causas y con los efectos previstos en la Ley de Sociedades Anónimas.

**Artículo 32°. Liquidadores. Poder de representación de la sociedad disuelta.**

1. Disuelta la Sociedad, todos los administradores con nombramiento vigente e inscrito en el Registro Mercantil quedarán de derecho convertidos en liquidadores, salvo que la Sociedad hubiese designado otros al acordar la disolución. Si el número de los administradores fuere par, no quedará convertido en liquidador el administrador de menor edad.

2. En caso de disolución de la Sociedad, el poder de representación corresponderá solidariamente a cada uno de los liquidadores, cualquiera que hubiera sido el régimen del poder de representación atribuido a los administradores.

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos



## VII. TITULUA
## BESTE XEDAPEN BATZUK

**33. artikulua Sozietatearen jardueren kontrola.**

Bizkaiko Foru Aldundiak, arlo ekonomikoan, beharrezkotzat jotzen dituen zaintza eta kontrol funtzio guztiak gauzatuko ditu, baita aplikagarriak diren xedapenen arabera derrigorrez bete beharrekoak direnak ere.

**34. artikulua Sozietateko langileak.**

Sozietateko langileak lan erregimen hutsaren mende egongo dira eta Sozietatera atxikita egote hutsak ez dio ematen Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario izaera.

**35. artikulua Araudi aplikagarria.**

Estatutu hauetan aurreikusita ez dauden gai guztietarako, Sozietate Anonimoetarako ezarritako agindu orokorrak eta, kasuan-kasuan, ezarritako foru izaerako araudi espezifikoa, aplikatuko dira, adierazitako ordenan.

## TÍTULO VII
## OTRAS DISPOSICIONES

**Artículo 33°. Control de las actividades de la Sociedad**

La Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia ejercerá en materia económica todas las funciones de tutela y control que considere necesarias, así como a aquellas a que venga obligada por las disposiciones aplicables.

**Artículo 34°. Personal de la Sociedad**

El personal de la Sociedad se halla sujeto al régimen estrictamente laboral y la sola circunstancia de estar adscrita a la Sociedad no le confiere condición de funcionario de carrera de la Diputación Foral de Bizkaia - Bizkaiko Foru Aldundia.

**Artículo 35°. Normativa aplicable**

Para todo lo no previsto en los presentes Estatutos se aplicarán, siguiendo el orden que se indica, los preceptos de carácter general para las Sociedades Anónimas y, en su caso, la normativa específica de carácter foral que se promulgara.